

EGUNEKO DIANAK

Joan Paulo II



Gerra hasiera nazioarteko zuzenbide eta komunitatearen porrota larria dela esan zuen atzo Joan Paulo II Aita Santuak. Eliz mandataria bere atsekabe sakona agertarazi zuen eta «hasitakoa lehenbailehen buka dadila» eskatu. Aita Santuak adierazi zuenez, «indarra erabiltzea ez da izan eta ez da behin ere izango nazioarteko arazoak konpontzeko bide zuzena». / 12

Euskaltzaindia



Nafarroako Gobernuaren gomendioz Euskaltzaindiko Onomastika Batzordeak osatu eta argitara emandako 'Nafarroako herri izendegia' aurkeztu zuten atzo Iruñean. Azterketa honen arduradunek ikerketa hau Nafarroako herrien izenei buruz egin den sakonena dela eta nafar toponimiaren inguruko zalantza asko argitzeko izango dela baliagarria nabarmendu zuten. / 7

Astigarraga eta Loiolako pilotariak



Pilotarien bultzadaz eta pilota jokoa jolasa bihurtu nahian, Astigarraga eta Donostiako Loiola auzoko frontoietan egiten diren entrenamenduak agerikoak izango dira eta ikusleek parte hartu ahal izango dute. Nahi duten guztiak partehartzera gonbidatuta, pilotalekuotan entrenatu ohi duten pilotariak, pilota zaletasuna berreskuratzea dute helburu. / 23

Frantziako




Pierre Mauroy Frantziako PS (Alderdi Sozialista) alderdiko idazkari nagusiak atzo adierazi zuenez, Pertiako Gorkoan indarra erabiltzearen aurka azaldu ziren bere alderdiko hamaika parlamentari pardedutik bota dituzte. Zortzi diputatu eta hiru senadorek «aurrerantzean ezin izango dute ez hitzeging ez eta idatzi ere PSren izenean» esan zuen Mauroyk. / 16

Javier Sada: «Herri txikiko mentalitatea du Donostiak»

JOXAN OIZ / DONOSTIA

Donostiako historiari buruz ia dena dakienik bada, hori Javier Sada dugu. Kamioikada bat orri xahar eta dokumentu omen dauka bere etxean. Arratsalde-oro, lanetik irtenda, liburu eta paperrok harrotuz ematen ditu orduak 48 urteko donostiar honek, «telebistari so edota txanpinoiak landatzen egon beharrean, nahiago dut Donostiako historia ikertu, nere hobby-a da». Historialaria ez izan arren, «beste titulurik ere ez dut, 13 urterekin utzi bait nuen eskola eta ez zidaten 'kartila eskolarra' delakoa eman», ederki baino hobeto ezagutzen ditu Donostiako pasadizuen zirrikitu guztiak. Donostiako antzerkigintzako historiari buruz izan zen bere lehengo ikerlana, baina antzerkia alde batera utzita historia/Donostia bikotearrekin geratu zen.

Historia du gustoko baina nahiago du intrahistoria kondatu. «Kronista naiz ez historialaria. Azaldu nahi nituzke garai bateko jendearen sentimenduak eta jokamoldeak eta ez irabazleen historia ofiziala». Azaltzen, pilaturiko jakinduria plazaratzen, gozatzen du: «zientoka hitzaldi, irratsaio, artikulua eta abar egin ditut hemen Gipuzkoan». Lana, ogibidea, Donostiako CATen (Donostiako Kultur eta Turismo Ekintzetxea) eta dirudienek, bere iharduera ikusita, jendeak nahastu



egiten ditu hobbya eta lana. «Nere ofizioa gaurko Donostiako bizitzan txertatzen da eta afizioa, berriz, garai bateko Donostian koka liteke».

Bere kondakizunak arrakasta

handia izaten dute jendartean, eta horretaz konturatu da: «Ni ez naiz ikerlari edo historiadore, baina saiatzen naiz historia-koro liburu astun eta lodikote horiek kale mailako azalpenetan

SOSLAIA

Donostiak banderarik ez duela dio

Urgul mendia eta Santa Klara uhartearen artean urpeko biderik ba ote dagoen jakiteko Sadari galdetu. Zein izan zen estraineko Danborjole Nagusia? Sadari galdetu. Kale honek halako izena zuen lehen, ezta? Ez dakit. Sadari galdetu. Bai, Donostiako ohitura eta pasadizuen berri izan nahi baduzue Sadari galdetu. Beti ikasten da zerbait bere etengabeko hizarioa entzunez. Ni neroni atzo enteratu nintzen Donostiak ez duela banderarik (Bilbok ere ez portzierto!), gure bandera txuriurdina itsasuntzi donostiarren bereizgarria besterik ez dela, alegia.

LERRO GUTXITAN

ETA BIHAR

Vatanen txapeldun Paris-Dakarren

Ari Vatanen eta Stephane Peterhansel izan dira aurtengo Paris-Dakar rallyaren irabazleak. Kotxei dagokienez, ezbehar ugari ostean Citroen taldeak, behar zuen garapena eskuratu du Vatanen finlandiarren eskutik. Motoetan, Yamaha nagusitu da hamairugarren edizio honetan, Stephane Peterhansel gain Yamahako gidariak nagusitu bait dira sailkapenean. Azken emaitzak baino, proba honek izan dituen gorabeherak, pilotu baten hilketa barne, izan dira protagonista.



ANTTON txerria dugu hau, Bilboko 'Zerrien Dohainen Defentsarako Akademia' atzo aurkezturiko maskota. Gasteizko San Anttoneko txerri sariketan, 82508 zenbakidun txartela izan da sariduna.

Pinochet Hiriart arma tratuetan Gadafirekin

Muamad Gadafi Libiako agintariak, Chileko diktadore ohiaren semeari, Augusto Pinochet Hiriart, hiru mila dolar (hogeitamar milioi pezeta, milioi t'ardi libera) mailegatu zizkiola jakinerazi zuen atzo Chileko legebiltzarrak. Pinochet Hiriartek Chileko fusil lantegi bat finantzatzeko erabili zuen dirutza hau. Diputatu batzorde bat, bitartean, armadak Pinocheti ordaindutako hiru milioi dolar inguruko diru piloaren inguruan ari da ikertzen. Pinochet berak batzorde honi aditzera eman dionez Israel eta Libian aholkularitza militar lanak egin ditu eta nazioarteko merkatuan arma bitartekari dela gaineratu du.

Liburuak izango dira notizia

Biharko orrialde bereziak liburuei eskainiak izango dira. 'Hots' argitaletxe legazpiarraren berri jakin dugu Aitor Aranarekin hitzeginda. Esperantoa euskaraz ikasteko aukera ematen duen liburu bat kaleratu berri du Aitor Aranarekin argitaletxe honetan, eta euskaraz esperanto hiztegia ere argitaratzeko asmoa du. Bestalde, Patziku Perurenak bere maisua zein den aitortzen du 'Liluratura' sailean, eta Pablo Sastre egin diogu asteroko test-galdeketa.

APIKA
INFORMATIKA

ADIZU: APIKA, GESTIOGINTZAN MAISU

DONOSTIA
Ametzagana 19, b'hea. Tf. (943) 274711 - 283399.
Fax (943) 274600
BILBO
Begonalde 9-1. Tf. (94) 4467684.
Fax (94) 446 76 85

BEHAR DUZUNA, IZATEZ ETA NEURRIZ, INFORMATIKA BERRIZ